

BIZIA ETA TRONUA **XAKEAN** IRABAZI



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Granada, 1391. Yusuf II.a erresuma nazariko errege izendatu zuten Muhammed V.a hil eta gero. Agintaldi laburrean arteak eta zientziak bultzatzen ahalegindu zen, baita barne gatazkak itzaltzen ere. Hainbat senitarteko giltzapetu eta hil zituen konspirazioak itzaltzeko asmoz. Baina alferrik, tronuan eseri eta berehala Muhammed seme gazteena buru zuen matxinadak zalantzan jarri baitzuen bere agintaldia. Ozta-ozta lortu zuen semearen saiakera bertan behe-zauzte.

Hala ere, hurrengo urtean, 1392an, sultana modu misteriotsuan hil zen (ziurrenik, pozoituta), eta Muhammedek aukera baliatu zuen bere burua errege izendatzeko.

Aitak egin bezala, Muhammed VII.aren lehen lana familia eta gortea mehatxuetatik garbitzea izan zen. Zerrendan lehena bere anaia zaharrena zen, Yusuf, aitak ondorengo izendatu zuena. Salobreñako gazteluan giltzapetu zuen anaia nagusia, Granada hiriburutik 50 bat kilometrorra. Hantxe eman zituen Yusufek hurrengo hamasei urteak, Muhammed VII.ak agintean eman zituen berberak.

1408an Granadako sultana gaixorik zegoen eta, heriotza gertu ikusita, ondorengotza ondo lotzea erabaki zuen. Bere semea errege izan zedin beste hautagai nagusia, Yusuf, eliminatu behar zuen. Ez zen nahikoa gaztelu batean giltzapean



OBJETIVO GRANADA

Alhambra El Partal lorategietan zegoen Yusuf III.a sultanaren jauregia.

sartuta egotea, eta anaia hiltzeko agindu zuen.

Heriotza-agindua idatzita zeraman mezularia Salobreñara iritsi zenean, Yusuf xakean ari zen alkaidearekin. Alkaideak gutuna irakurri zuen, Yusufi erakutsi zion, eta agindua bete beste erremediorik ez zuela esan zion. Yusufek, hil baino lehen emaztea ikusi nahi zuela esan zuen. Baina azken nahi hori ukatu zioten. Kondenatuak, orduan, jokatzeko ari ziren xake partida hura behintzat bukatzeko eskatu zuen. Eta alkaideak beste nahi hori onartu zion.

Asko luzatu omen zen partida eta kondairak dio azkenean Yusufek irabazi zuela, alfil bat mugitu eta xake-matea lortuta.

Orduantxe, anaiaren agindua betetzea besterik geratzen ez zenean, beste mezulari bat iritsi omen zen Granadatik, oso bestelako mezua eskuetan: Muhammed VII.a hilda zegoen, eta Yusuf III.a nazarien dinastiako 14. errege izendatu zuten. ■



CHINESE PAINTINGS

Arrozak eraikuntzarako ere balio du

Bingjian Zhang buru duen ikerlari taldeak arrozari buruzko aurkikuntza bixia argitaratu du *American Chemical Society* aldizkarian. Horren arabera, duela 1.500 urte Txinan arrozez egindako oreka erabiltzen zuten eraikuntzan, harrizko blokeen arteko tarteari betetzeko. Korea baino eraginkorragoa

zen tenperatura altuen eta hezetasunaren kontra eta lurrikaretan ere hobeto eusten zion. Amilopektina izeneko karbohidratoak ematen dizkio arrozari eraikuntzarako egoki bihurtzen duten ezaugarri horiek. Zhangen arabera, "gauri hartako mugari teknologiko nagusietakoa izan zen". ■